

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIALANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 2018ko irailean irekiko du Navarra Arena

Horrela, irtenbidea emango dio 2013tik itxita, amaitu gabe eta zorpetuta dagoen azpiegitura horri

Asteazkena, 2017.eko martxoak 29

2018ko irailean hasiko da Nafarroako Gobernuak Navarra Arena Pabilioia publikoarentzako irekitzen; horrela, irtenbidea emango dio 2013. urteaz geroztik itxita eta erabili ahal izateko oraindik obra beharrean dagoen eta judzialki 4,2 milioi euro erreklamatzeko zaizkion azpiegitura horri.



Navarra Arena pabilioiaren kanpoaldea.

Ana Herrera Kulturako, Kiroleko eta Gazteriako kontseilariak gaurko saioan eman die [pabilioia irekitzeko eta erabiltzeko planaren](#) berri Nafarroako Gobernuak gainerako departamentuei; NICDO sozietate publikoak kudeatuko du zuzenean pabilioia.

Egun zehatzetan irekiko da instalazioa, aurrez dagoen eskaintza osatuko duten kirol- eta kultura-ekitaldietarako, eta Komunitateko beste azpiegitura batzuek baino edukiera handiagoa behar duten ekitaldietarako. Kirolaren esparruan erreferentziatzeko espaziotzat kokatzea proposatzen da; horregatik, Pabilioiaz gain, Kirolaren eta Gazteriaren Nafarroako Institutuaren kirol-arloaren egoitza eta Kirolaren Etxea ere –federazioen egoitza– hartuko ditu eraikinak.

Aurten hasiko da pabilioia irekitzeko prozesua

Aurten bertan hasiko dituzte Pabilioia martxan jartzeko beharrezko lanak, 7,3 milioi eurotan baloratutako lanak egitea falta baita oraindik. Kopuru horretatik, 6 milioi euroko baliodun lanak egingo dira, segurtasun- ekipamendurako, kirol-



Instalazioen barrualdea.

ekipamendurako, zerbitzu- ekipamendurako eta altzaritarako, eta aparkalekua martxan jartzeko. Bere garaian aurreikusitako gainerako lanak egiteke geratuko dira; tartean, museo bat egitea aurreikusten zen.

NICDO sozietate publikoak kudeatuko du instalazioa, kirol-beharren, kultura-beharren eta beste erabilera batzuetarako beharren arabera, bere kudeaketa-esparruko erabilera anitzeko beste azpiegitura batzuekiko sinergiak baliatuta. NICDOk beste azpiegitura batzuk ere kudeatzen ditu, hala nola Baluarte Kongresuen Jauregia eta Auditorioa, Iruñeko Planetarioa, Larra-Belaguako Eski-zentroa, eta Nafarroako Zirkuituaren eta Nafarroako Azoka Barrutiaren jabea da.

Pabilioiko jardueraz gain, Kirolaren eta Gazteriaren Nafarroako Institutuaren kirol-arloko egoitza ere hartuko du eraikinak, baita Kirolaren Etxea ere, federazioen egoitza; Navarra Arenan bertan egongo dira bi egoitzok, bai eta pabilioiaren kudeaketaz arduratuko diren NICDO sozietateko langileak ere. Horrela, garrantzi handiagoa hartuko du instalazioak, Nafarroako kirol-arloaren kudeaketako eta erreferentziatzko zentroa izango baita.

Navarra Arena Pabilioia martxan jartzeko, Europako Inbertsio Bankuaren hiru milioi euroko mailegua emango dio 2017an SODENAK. Proiektu-fasearen gainerako kopurua (hiru milioi euro) Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKP) eskutik etorriko zaio, 2018ko lehenengo hiruhilekoan.


Instalazioa ustatzeko eredia izango da Navarra Arenaren prestazioak behar dituzten formatu handiko ekitaldietarako bakarrik irekitzekoa; ez da beti irekiko, eta ez da etengabea izango dagozkien kirolelan elite mailakoak diren taldeen eta kirolarien presentzia.

Erreklamazioak


Bestalde, Nafarroako Gobernuak martxoan jaso du II. Faseko esleipenduna izan zen Aldi Baterako Enpresa-elkarteari 474.421,29 euroko kopurua berehala ordaindu beharra ezartzen dion ebazpen judizialaren jakinarazpena; Aldi Baterako Enpresa-elkarte horrek Navarra Arena Pabilioiaren obra-amaierako ziurtagiriari buruz jarritako erreklamazioagatikoa da ebazpen hori (otsailaren 20ko epaiaren arabera). Epaiak partzialki onesten du Aldi Baterako Enpresa-elkarte horrek jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Ebazpen horren ondoren, 4.218.395 euroko baliodun erreklamazioak geratzen dira bide judizialean ebazteko.

Galería de fotos



Kanpoaldea, gauetz.



Barrualdearen ikuspegia.



Barrualdearen ikuspegia.



Frontoia.